

EUSKALTEGIEN TXOKOA

AEK EUSKALTEGIA

15
korrika


badator!

**«Korrika batzordean herritar,
herriko talde eta ikastetxeetako
ordezkariek parte hartu dute» / II**

æk heldu
ELKARLANARI EUSKARARI HERRIARI
HITZARI LEKUKOARI



Nola antolatzen dugu euskaltea / III



Korrika Txikia, Korrika Gaztea
eta Korrika Nagusia / IV

LEIRE ARREGI eta LUR ETXEBERRIA

Hernani-Astigarragako Korrika arduradunak:

«Korrika batzordean herritar, herriko talde eta ikastetxeetako ordezkariak parte hartu dute»

Nola antolatzen duzue korrika?

Aurten, aspaldi ez bezala, herri batzordea deitu dugu eta hainbat lan aurrera ateratzeko elkarlanean aritu gara.

Zer da herri batzordea?

Urtarrila aldera-edo bilera ireki baterako deia egin genuen eta korrika antolatzen lagundu nahi zuen edozeinek parte hartzeko aukera izan zuen. Sei bat bilera egin ditugu eta herritar, herriko talde eta ikastetxeetako ordezkariak parte hartu dute.

Zein taldek parte hartu du?

Ttaria dantza taldeak, San Joan konpartsak, Gazte Asanbladak, EHEk, Dobera euskara elkar-teak eta Hernaniko lau ikastetxeek. Hala ere, ezin ditugu aipatu gabe utzi bestelako herritarrak, hau da, inongo taldeetako ordezkari ez direnak.

Zer egiten du batzordeak?

Egia esan, batzordeak lan gogorrena egiten lagundu digu. Korrika garaian Korrika Lagun egin behar izaten dugu komertzioz komertzio besteak beste, eta guretzat oso gogorra den lan honetan adibidez laguntza handia eskaini digute. Bestalde, korrika eguna antolatzen ere aritu da herri batzordea. Eta korrika kulturala ere hor dago, eta ideiak eta proposamenak behar dira, ba, horretan ere laguntzen digute batzordekoek. Ahaztu gabe jende askorekin hitz egin behar dela gauzak antolatzeko, eta zenbat eta gehiago izan, errazago denontzat.

Nor da aurten omendua? Eta Hernanin?

Euskal Herri mailan emakumeak gara omenduak eta Hernanin ere emakumeari eman nahi izan diogu garrantzia eta lehentasuna; horregatik, guztiak ordezkatu nahian-edo eta modu sinbolikoan euskara maite eta euskaraz bizi diren 3 belaunalditako emakumeek eramango dute Hernaniko lekuko berezia. Euskararen transmisioan



Leire Arregi eta Lur Etxeberria, Hernani-Astigarragako Korrika arduradunak, atzo, Euskaltegian.

ezin dugu ahaztu emakumeak izan duen garrantzia: gizonezkoak kanpoan lanean ari ziren bitartean emakumeak zaindu behar zituen umeak, eta bere hizkuntza transmititu. Emakume horiei esker eutsi diogu, neurri handi batean behintzat, hizkuntzari.

Non izango da harrera? Eta nolakoa?

Korrikari harrera eta ongi etorria udaletxe atzean egingo diogu martxoaren 24an eguerdiko 12:00ak aldera. Lehenengo, Ttaria dantza taldeko dantzariak omenduei ohorezko aureskua dantzatuko diete eta karrera iristean txalapartariak joko dute.

«Guztiak ordezkatu nahian-edo eta modu sinbolikoan, euskara maite eta euskaraz bizi diren 3 belaunalditako emakumeek eramango dute Hernaniko lekuko berezia»

«Kasu batzuetan kilometroa sinbolikoa da, ezin da banaketa justu-justua egin. Kilometroa erosi dutenak gehiago dira Hernanin kilometroak baino»

Halere, lehenago eta herria girotzeko Arrosako txaranga, San Joan konpartsa eta Ttaria dantza taldea herrian zehar ibiliko dira. Uste dugu harre-beroa eta koloretsua izango dela.

Hernaniko kilometro guztiak salduta al daude?

Elkarrizketa hau jendeak irakurtzen duenean bai, salduta egongo dira, baina oraindik batzuek erantzuna eman behar dute.

Zenbat balio du kilometroak? Eta nola banatzen dituzue?

Kilometroak 380€ balio ditu; halere, talde guztiek ezin

dute diru hau ordaindu eta ahal dutena jartzen dute; nahi duenak kilometro erdia ere eros dezake.

Urnietatik Perurenaraino da gure ardura eta 15 kilometro ditugu banatzeko; Hernaniko zatia Mandazubitik Yalde jatetxeraino izango da; jende asko dago kilometroa erosi eta erosten duena eta beti ez du kilometro oso bat korrika egiten; batzuetan, 500 metro besterik ez dira izaten. Esan daiteke, kasu batzuetan kilometro sinbolikoa dela, ezin dela banaketa justu-justua egin eta bakoitzari kilometro bat eman. Gure herrian kilometroa erosi dutenak gehiago dira kilometroak baino.

Zergatik ez duzue urtero antolatzen?

Korrika Euskal Herri osoan antolatzea oso neketsua da; gainera, urtero antolatuko bagenu jendea nekatuko litzateke. Kanpotik ikusita oso polita da, baina euskaltegian zaudenean konturatzen zara zenbat gauza pentsatu, antolatu eta egin behar diren. Normala da, baina hemen, euskaltegian, aspaldi hasi ginen Korrika-rekin eta urtero egingo balitz, egia da, jendea nekatuko litzateke.

Zein abiadura hartzen du batez beste Korrikak?

Gutxi gora behera 10 kilometro egiteko ordu bat behar izaten du; atera kontuak, kilometro bat egiteko 6 minutu. Hala ere, ez da beti abiadura berdina izaten, eta jende asko dagoen tokietan mantsoago joaten da. Ez da gauza bera herri handi samar batean edo hiri batean, edo herri txiki batean. Adibidez, Hernaniko erdialdean edo Goizuetako bidean. Orduan, kalkuloen arabera, erdialdean atzeratu egiten da, baina gero beste leku batzuetan azkarrago joan behar da denbora errekuperatzeko.

Zer dago lekuko barruan?

Lekuko barruan mezua dago, ezezaguna. Korrika Iruñean bukatzen denean lekuko ireki eta mezua irakurriko dute. Mezua beti desberdina izaten da. Eta bukaera egunean jakingo dugu mezuak zer jartzen duen eta nork idatzi duen.

Zein da buruhausterik handiena?

Diru bilketa egitea. Dirua lortzeko kilometroak saltzen ditugu eta horretaz aparte enpresetara eta komertzioetara joaten gara Korrika lagun egitera, diru laguntza eskatzera. Lan hau enpresetan batez ere oso gogorra izaten da, askotan gerentearekin hitz egin behar duzu eta ez dago beti lantegian; gero Korrika datorrela azaldu behar diozu, eta abar. Hauxe da finantziario bide inportanteena Korrikarentzat, kilometro salmentarekin batera, noski.

Urtero mantentzen al da giroa?

Egia esan, bai. Jendeak poz handiz hartzen du korrika; emozioantea da.

Baina bi urtean behin izatea ere arrazoi bat izan daiteke, lehen esan dugun bezala urtero gehiegi litzateke. Baina bai, oso giro berezia eta parte-hartzailea sortzen da, jende askok parte hartzen du eta asko inplikaturik.

Korrika nagusiaz aparte zein ekitaldi daude? Herri guztietan gauza bera egiten al duzue?

Korrika kulturala izan dugu martxo guztian zehar eta horretaz gain martxoaren 23an korrika gaztea eta korrika txikia izango ditugu.

Korrika gaztea, gazteekin elkarlanean antolatzen dugu eta goizeko 11:30etan abiatuko da Institututik. Korrika txikia arratsaldeko 15:00etan izango da Meabetik abiatuta eta herriko haurrek parte hartuko dute; plazan txokolatada batekin bukatuko dugu.

Korrika txikia eta gaztea ia herri guztietan egiten dugu, baina korrika kulturala ez da beti bera izaten. Herri bakoitzak berea antolatzen du. ||



AEK euskaltegian Korrika-giroa nabaria da egunotan.

Nola antolatzen dugu gure euskaltegia

Irakasleek, ikasleok eta bestelako herritar batzuk (laguntzaileak) osatzen dugu euskaltegia. Denok parte hartzen dugu eguneroko martxan, baina bakoitzak bere funtzioa du. Korrika garaian eguneroko funtzionamenduak jarraitzen du, klaseak jarraitzen dute, baina extra bat da Korrika. Orduan irakasleek aparte ikasleok ere inplikazio handiagoa dugu egun hauetan.

Horretarako lantalde batzuk antolatzen dira, dauden lanen arabera. Aurten adibidez: BIZIKLETA MARTXA egiteko lantaldea dago, motozaleak behar dira, bidegurutzeak ixteko jendea, kotxeak gidatzeko...

Korrika txikia egin ondoren TXOKOLATADA dago, txokolatea egin behar da, banatu eta dena jaso, eta horixe egingo du lantalde honek; 1.600 ume izango dira txokolatadan. Korrika pasatzen den egunean HERRI KIROLAK izango dira gaztetxoentzat XIBA taldearen laguntzaz eta gu ere hor egongo gara, eta jendea behar denez umeekin ibiltzeko lantalde bat izango da herri kirolena. Eta Korrika nagusia pasatzen denean 24an, gero Herri Bazkaria izango da, eta batzuk

mahaiak jarriko dituzte, beste batzuk bazkaria banatu eta besteek mahaiak jaso; beraz horixe izango da beste lantalde bat. Eta herria DEKORATU edo APAINDU ere egingo dugu banderinak, txartelak eta abar jarritz, eta horretarako beste lantalde bat dago. Eta azkenik ikasleen txoko hau ere egin behar dugu, eta batzuk hauxe egingo dugu: lau orrialdeok bete; gure lantaldearen lana da IKASLEEN TXOKOA egitea KRONIKAN ateratzeko eta jendeari informazioa emateko. ||



Korrika kulturalaren barruan, bizikleta martxa.


EUSKALTEGIEN TXOKOA 5

Korrika txikia

IRTEERA

Marieluts - Urbieta - Elcano - Lizeaga - Larramendi - Plaza - Kardaberaz - Nagusia - Plaza.

AMAIERA



Martxoak 23
ostirala, 15:00 etan

EGITARAUA

- 10:00etan**
XIBArekin haurrentzako herri kirolak Tilosetan
- 11:00etan**
Herri kalejira TTARLA, SAN JUAN KONPARTSA eta "AERLANZ BAND" Arrosako txarangarekin
- 12:00etan**
KORRIKARI harrera Udaletxe atzean
- 14:00etan**
Herri bazkaria Tilosetan, "AERLANZ BAND"ek giroturik

Korrika gaztea

IRTEERA

Santa Barbara - Sandiusterrri - Ispizua - Txirrita - Atsegindegi - Elcano - Lizeaga - Larramendi - Plaza atzekaldea - Kardaberaz - Antziola - Perkaiztegi - Montebideo - Sagastialde - Florida - G. Celaya - Zinko Enea - Nagusia - Plaza.

AMAIERA



Martxoak 23
ostirala, 11:30 ean

HELDU KORRIKARI

*Oilarrak kukurukuz
Ozenki hor kükürüküz
Herri hontan zer ote da?
Heldu heldu Korrikari
Heldu heldu Euskarari
Ibiliz goitik behera
Karrantzatic Iruñera!
Mendez mende euskalduna
Izan da Euskara-duna
Aitzina egin beza!
Herria da gorputza
Hizkuntza aldiz bihotza
Xalbadorren mezua
Herri honen oihua!
Hitza pitz ahoz-aho
Erabiliz egunero
Mendi puntatik ibaira
Nortasunaren mintzaira...
Heldu heldu Korrikari
Heldu heldu Euskarari
Erabiliz barra-barra
Karrantzatic Iruñera!!*

Korrika nagusia

hernanin Martxoak 24
12:30ak aldera



Urnietako errepedetik - Mandazubi - Lizeaga kalea - Plaza - Kale Nagusia - Zinkoenea - Txirrita kalea - Urbieta Latxunberuntz - Atarrabiyoko rotonda - Latxunbe - Ave Marian ezkerretara - Perkaiztegi - EPOko rotonda - Karmelo Labaka - Elcano - Udaletxe atzetik - Lizeaga - Victor Hugo - Larramendi - Plaza - Kardaberaz - Zinkoenea - Martindegi - Ergobia - Astigarraga

TXIS PUN! KORRIKA!

*Hiru, bi, bat, zero! Txis pun!
Korrika!
K-O-R-R-I-K-A
Korri, korri, Korrika
Euskaraz martxan alai denok
Korrika, denok, katxiporreta!

K-O-R-R-I-K-A
Korri, katxiporreta!
Euskaraz, arraio tximista!
Korrika, denok, korri Korrika.

Arin pausoak, tipi-taupa
bihotza ta zangoak
Altxa besoak, txalo, txalo,
jo txaloak!
Aio, aio! Hator gurekin,
hi, Pelaio!
Pozik bizi, euskarari heldu,
dibi-daba-daba-du
Egin irrintzi, euskaraz
aiaiaijiji!!

Esnatu gara eta gurekin
batera euskara
Kantari goaz eskolara lara-lara
Ñam-ñam bapo, mmm!
Tori bi muxu, lau piropo!
(Eskerrik asko!)

Arratsaldero plazan elkartu,
dibi-daba jolastu!
Ondo lo egin, koloretako
ametsekin.*